

'Baserria (h)uz(s)ten'

Galeraren minean aurkitutako sormenak hauspotutako poesia

Oskar Gazteluk 'Baserria (h)uz(s)ten' (Erein) poema-liburua aurkeztu du, dolua eraikinean eta honen inguruko oroitzapenetan gorpuztuz



Arizmendi



Jon Agirre
Donostia
Martes, 23 de mayo 2023, 15:54

+ Seguir

Comenta

Heriotzaren beldurren aurrean babesa bilatzeko aspaldi-aspaldian sua edo kobazuloa erabili ziren bezala, mende luzez Euskal Herrian «erreferentziatzeko eraikina izan den baserria», aipatutako bi elementuak «batzen» dituena Oskar Gaztelu idazlearen ustetan, da 'Baserria (h)uz(s)ten' (Erein) poema-liburua gorpuzten duena. Izan ere, egun «hilzorian dago bertan ematen diren bizimoduak bezala».

Egungo bizitzak duen abiaduraren aurrean doluarekin uztartu nahi izan du poesia lana. «Gurasoak joatean babes mitologiko hori gabe geratzen zara. Gure istorio pertsonalen horri guztiak dituzte, desagertzen dira eta helduak bihurtzen gara edo gure kabuz bideratu behar gara». Galera eta barne huste hori Baserriaren bitartez bildu du idazleak, istorio pertsonalarekin oso lotua dagoelako. Urkulu errota-baserrian (Larrabetzu) jaio zen 1964an eta poliki-poliki familiako kideen heriotza bizi izan du. «Ama joan zaigu. Lehenago, aita eta amama joan ziren. Lur isilera. Une honetan baserrian ez da inor. Orain baserria hustu behar dugu. Eta gauzak ez dira gauzak besterik ez, giza arrastoen eramaileak ere badira», dio liburuaren sinopsiak.

Aldiz, prozesu hori islatzea beti ez da erraza eta Gazteluri ere kosta zaio eta umeei gertatzen zaienaren alderatu du, zerbaitetaz lehen aldiz konturatzean hitzak topatzeko duten zailtasunarekin. «Hori dago poesian, neurtu ezin den zerbait, kontrolaezina, infinitua dena umeak dituen hitz mugatuekin kontaktzen ahalegintzea». Are gehiago eraikina husterakoan «barneko objektuek garaitan bizi dugunaren mezuak bidaltzen dizkigutelako. Horrek zerbait sakona mugitzen du barnean».

Gazteluren aburuz «heriotzak gizakia hunkitu» egiten du, «barnetik esperimentatzen duelako jasanezin edo larrialdi hori» eta gerora norberaren lana da hori kudeatzea. «Une batzuetan, halako galera bat ematen denean, denbora gelditu egiten dela ematen du. Horrekin zirkulatzen dugu eta bakoitzak ikusten du nola bideratu». Bere kasuan sormena topatu du une horretan eta bizipen horiek guztiak islatzen saiatu da, «heriotzaren aurrean ezintasunean» aurkitzen garelako denok.

'Baserria (h)uz(s)ten'



Egilea: Oskar Gaztelu.

Argitaletxea: Erein.

Estiloa: Poesia.

Prezioa: 10 euro.

Orri-kopurua: 56.

Aurkeztutako poema-liburua ez da Gazteluk argitaratutako lehen liburua. 2019an 'Nire bizitza ni barik' saiakera kaleratu zuen Becerro de Bengoa lehiaketa irabazi ostean, hau ere Arabako Foru Aldundiak antolatutakoa. Aurkezpenean azaldu zuenez, hari esker hasi zen idazten eta orduan ikusi zuen esateko zuena pentsatzeaz gain ikusi zuela benetan zuela zer esan. «Mundu honetan berriak garenoi aukera eta bide bat ematen digute horrelakoek».

'Baserria (h)uz(s)ten' poema-liburuan Gaztelu «espazio fisikoki batetik abiatuta, baserria, barruan ere gertatzen den husteaz» ari dela nabarmendu du Uxue Razquin, Erein argitaletxeko editoreak, eta gaia abiapuntu izanda sortu direla poemetako hausnarketak. «Izan ere, gure gertuko norbait hiltzen denean nola bete hitzez sortzen den

absentzia, nola eragiten duen gugan heriotzak», azaldu du. Hala, heriotzaz gain honek dakartzan beste hainbat kontu ere, «denboraren moteltzea, bakardadea, isiltasuna eta mina» topatuko ditu irakurleak.

Gazteluren lanak 2022ko Ernestina de Champourcin XXXII. poesia saria saria irabazi zuen, Arabako Foru Aldundiak «sormenaren garapena sustatzeko» sortutako ekimena Karmele Aguayo erakundeko liburutegiko teknikariak esan bezala.

Temas Erein Argitaletxea Poesía

Comenta

Reporta un error

Noticia patrocinada

Publicidad

Lo más leído

Top 50 >

1 · **El donostiarra Felipe Cabrerizo estrena su sello editorial con los suculentos 'Diarios' de Jane Birkin**

2 · **La profesora Phyllida Barlow entra en Chillida Leku**

3 · **Chillida Leku se transforma en Phyllida Leku**

4 · **«Cuando creas algo no sabes a cuánta gente podrá llegar»**

5 · **4.590 guipuzcoanos obtienen el Bono Cultural Joven**

Ver más

Publicidad

No te pierdas...



«No creo que volvamos a ver los precios de antes de la guerra de Ucrania»

Roberto Olabe señala la falta de ética del Barça por hablar de Martín Zubimendi

«¿En qué cabeza entra que un hijo vaya a Gros al cole y otro a Amara?»